



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 8a

94. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako errepideetan bidesariak ibilgailu arinei zabaltzeko planei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, bidesarien sistema berrian parte hartzen duten eragileen artean adostasuna lortzeko egin diren urratsei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Next Generation EU Europako Berreskuratze Planari lotutako Europako funtsen etorrerari buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroan kirol-jardunera itzultzeko Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (6. or.).
- Galdera, normaltasun berrian kirola egiteko Nafarroako Kirolaren Institutuak hartu dituen neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, COVID-19a dela eta, etxez etxeko laguntzako udal-zerbitzuetako profesionalekin egindako jarduketari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (7. or.).
- Galdera, krisiak kultura-sektoreetan izan duen eraginaren gaineko behin betiko azterlanari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (8. or.).
- Galdera, dagokion LEPa gainditu duten eta amatasunagatiko LEIn daudenez praktikak egiteke dituzten pertsonen egoerari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, enpleguari eta testuinguru ekonomiko eta industrialari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako unibertsitateetako 2020-2021 ikasturteko hasiera seguruari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Radar COVID aplikazioari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloa proiektuari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, arreta ez-presentzialaren planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, ezpainen lengoia errazten duten maskara gardenei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ikasturtearen hasierarako duen baheketa-planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Foru Komunitateak 2020rako duen defizit-mugari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumental enpresa publikoari buruz egin duen txostenari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Esa handitzeko proiektuari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (15. or.).
- Galdera, aurrekontu-ekitaldi hau ixteko aurreikuspenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, udal-titulartasuneko zentroetan COVIDaren aurkako higie-neurriak finantzatzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).
- Galdera, birusaren lehen kutsatze-kolpean egoitza-eremuan egon zen kutsatu-kopuru handia saihesteko hartutako erabakiei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda (18. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko neurriei buruzkoa.***DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Santos Induráin andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Abuztuaren 27an, osteguna, COVID-19aren agerraldi bat detektatu da, 175 pertsona ukitzen dituen, Tuterako Uvesa enpresaren instalazioetan, eta horiei aurretik detektatutako beste 22 lan-

gile gehitu behar zaizkie. Osasun-administrazioak denbora darama agerraldi gehien erantzukizuna leporatzen aisialdiko jardueri eta jarduera pertsonalei, lan-ingurune arriskuak gutxietsita. Kezkagarria iruditzen zaigu jakitea enpresa horrek ez dituela bere langileen osasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartu.

Enpresa horretan, langileen ordezkariak alarma-deiak eginak zituzten osasuna babesteko neurririk ez zegoelako, eta, horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu Osasun Departamentuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jarraipen zorrotza egitea eta gainbegiratzea ea betetzen diren lan-arloan osasuna bermatzeko indarrean dauden neurriak, bereziki, langile asko biltzen diren lantegietan.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer neurri ari da garatzen Osasun Departamentua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren bidez, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko? Eta zer neurri ezartzen ari dira Uvesa enpresako agerraldia kontrolatzeko eta dagozkion erantzukizunak eskatzeko?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 28an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, Nafarroako errepideetan bidesariak ibilgailu arinei zabaltzeko planei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako errepideetan bidesariak ibilgailu arinei zabaltzeko planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren etorkizuneko planen artean al dago Nafarroako errepideetan bidesariak ibilgailu arinei zabaltzea?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 31n

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, bidesarien sistema berrian parte hartzen duten eragileen artean adostasuna lortzeko egin diren urratsei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, bidesarien sistema berrian parte hartzen duten eragileen artean adostasuna lortzeko egin diren urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak inplikaturako eragile guztiekin, Nafarroako Errepide Sareko hainbat errepidetan ibilgailu astunei ezarriko dien bidesarien sistema berriari buruzko adostasuna lortzeko?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, obra publikoan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuarentzat lehentasuna al da ekonomia suspertzea obra publikoetan inbertituz? Eta hala bada, zer jarduera espezifiko egin ditu?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, Next Generation EU Europako Berreskuratze Planari lotutako Europako funtsen etorrerari buruzkoa.**

*JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Next Generation EU Europako Berreskuratze Planari lotutako Europako funtsen etorrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Europar Batasunaren Kontseiluan, uztailaren 17tik 20ra bitartean, EBko estatuburuek eta gobernuburuek akordio bat lortu zuten "Next Generation EU" Europako Berreskuratze Planaren banaketa ekonomikoari buruz, bai eta 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparruari buruz ere.

Europako Parlamentuak akordio hori behin betiko onartzeko zain, plan horrek guztira 750.000 milioi euroko laguntzak aurreikusten ditu; horietatik 390.000 milioi itzulgarriak ez diren laguntzak izanen dira, eta gainerakoa estatu kideei emandako kredituak. Kalkuluen arabera, Espainiak 140.000 milioi euro jaso ditzake guztira, eta horietatik ia 73.000 milioi zuzeneko laguntzak izanen dira.

Diru hori Europar Batasunak ezarritako zenbait irizpideren arabera banatuko da; beraz, oso garrantzitsua da aurkeztutako proiektuak irizpide horietara egokitzea.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari:

Zer urrats egiten ari da Nafarroako Gobernua Next Generation EU Europako Berreskuratze Planari lotutako Europako funtsen etorrera optimizatzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

---

## **Galdera, Nafarroan kirol-jardunera itzultzeko Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan kirol-jardunera itzultzeko Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri ari dira gauzatzen eta zer neurri berri inplementatu nahi dituzue Nafarroan kirol-jardunera itzultzeko, COVID-19aren krisi-egoera honetan?

Iruñean, 2020ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## **Galdera, normaltasun berrian kirola egiteko Nafarroako Kirolaren Institutuak hartu dituen neurriei buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, normaltasun berrian kirola egiteko Nafarroako Kirolaren Institutuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Pandemia gure foru erkidegora iritsi zenetik, kirolak gelditu egin behar izan zuen bere jarduera, kirolari nafarren artean kutsadurarik gerta ez zedin.

Zein neurri hartu ditu Nafarroako Kirolaren Institutuak normaltasun berrian kirola egiteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, COVID-19a dela eta, etxez etxeko laguntzako udal-zerbitzuetako profesionalekin egindako jarduketei buruzkoa.**

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, COVID-19a dela eta, etxez etxeko laguntzako udal-zerbitzuetako profesionalekin egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak etxez etxeko laguntzako udal-zerbitzuetako profesionalekiko –batez ere familia-langileekiko– zer jarduera egin ditu eta egitea aurreikusitako COVID-19a dela eta?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

## **Galdera, krisiak kultura-sektoreetan izan duen eraginaren gaineko behin betiko azterlanari buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, krisiak kultura-sektoreetan izan duen eraginaren gaineko behin betiko azterlanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura-sektorea kaltetuenetako bat izan da konfinamenduak iraun duen hilabeteetan, eta hala izaten jarraitu du gaur egun arte, jarduera asko bertan behera utzi behar izan baititu eta beste batzuk ikusle-kopuru oso txikiekin edo segurtasun-neurri bereziekin egin behar izan baititu. Behar bada, pandemiak kultura kontsumitzeko ohiturak aldatu ditu.

Badakigu Nafarroako Kulturaren Behatokitik, Geroa Bairen zuzenketa bati esker, bi ikerketa egin direla horren inguruan.

Amaitu al dira jada ikerketa horiek? Hala ez bada, noiz izan dezakegu krisiak kultur sektoreetan izan duen eraginaren behin betiko azterketa?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, dagokion LEPa gainditu duten eta amatasunagatiko LEIn daudenez praktikak egiteke dituzten pertsonen egoerari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, dagokion LEPa gainditu duten eta amatasunagatiko LEIn daudenez praktikak egiteke dituzten pertsonen egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nola jokutzen ari da Hezkuntza Departamentua kasuko LEPa gainditu duten eta amatasunagatiko LEIn daudenez praktikak egiteke dituzten pertsonen egoera konpontzeko edo hobetzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo



## **Galdera, enpleguari eta testuinguru ekonomiko eta industrialari buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpleguari eta testuinguru ekonomiko eta industrialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Erregistratutako langabeziaren datuak eta Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak ezagututa, zer ikuspegi darabil Nafarroako Gobernuak enpleguari eta testuinguru ekonomiko eta industrialari dagokienez?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorritz Goñi

## **Galdera, Nafarroako unibertsitateetako 2020-2021 ikasturteko hasiera seguruari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako unibertsitateetako 2020-2021 ikasturteko hasiera seguruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren kudeaketa, Nafarroako unibertsitateekin lankidetzan, gure erkidegoan 2020/2021 unibertsitate-ikasturtea seguru hasteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

---

## **Galdera, Radar COVID aplikazioari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Radar COVID aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da Nafarroako Foru Komunitatearen lana eta inplikazio-maila Radar Covid aplikazioa sortzeko eta hura Osasun Zerbitzuan txertatzeko, eta zertan da haren abian jartzea?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **Galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea prostituzio-sistemaren abolizioari aurkeztutako galdera, prostituzio-sistemaren abolizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Gobernuko lehen lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Bar-

neko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prostituzioa, zalantzarik gabe, indarkeria matxistaren adierazpen ankerrenetako bat eta giza eskubideen muturreko urraketa bat da.

Pandemiaren ondorioz, arreta prostituzio-etxeetan edo emakumeak sexualki esplotatzen diren tokietan jarri da. Hala ere, osasun publikoaren ikuspuntutik egin da, putazaleak arakatzeko zailtasunagatik, baina ez ikuspuntu abolizionista batetik eta giza eskubideen ikuspuntutik.

Nafarroako Gobernua publikoki abolizionista gisa agertu da, baina helburu horri heltzeko zailtasuna aitortu du, eskumen faltagatik. Gauzak horrela, hauxe da gure galdera:

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu prostituzio-sistemaren abolizioan aurrera egiteko, putazaleei eta proxenetek jazartzeko eta prostituzio-egoeran dauden emakumeak babesteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

## **Galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloa proiektuari buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Berrikuntza Digitaleko Poloa proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Koronabirusak eragindako pandemia jasan aurretik, digitalizazioa lehentasunezko helburu bihurtu zen gure erkidegoarentzat.

Baina, osasungintzaren ondoren etorri den krisi sozial eta ekonomikoaren ez-tandaren ondoren, funtsezko bihurtu da, argi eta garbi. Ezin da aurrerapen sozial edo ekonomikorik egon ezinbestekoa den digitalizazioa eduki gabe, zeina, bestalde, Europako Erkidegoak funtsezko helburu gisa ezarri baitu, 750.000 milioi euro banatzeko akordioan diruz lagundu beharreko proiektuen barruan, Europako Erkidegoko kide diren herrialdeen susperraldi ekonomikoari laguntzeko.

Nafarroan aspalditik ari ginen Berrikuntza Digitaleko Poloa izenekoa garatzen. Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Zer garapen-fasetan dago eta nola ari da aurrera egiten Berrikuntza Digitaleko Poloa proiektua?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

## **Galdera, arreta ez-presentzialaren planari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, arreta ez-presentzialaren planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Osasun Departamentuak pandemia hasi zenetik arreta ez-presentzialerako ezarritako planari buruz?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, ezpainen lengoia errazten duten maskara gardenei buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, ezpainen lengoia errazten duten maskara gardenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer urrats egiten ari da Gobernua pertsona guztiek ezpainen lengoia errazten duten maskara gardenak izan ditzaten?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak ikasturtearen hasierarako duen baheketa-planari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak ikasturtearen hasierarako duen baheketa-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuak ikasturtearen hasierarako duen baheketa-plana?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Foru Komunitateak 2020rako duen defizit-mugari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Foru Komunitateak 2020rako duen defizit-mugari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Zer jarrera defendatuko du Nafarroako Gobernuako lehendakariak Espainiako Gobernuarekin Foru Komunitateak 2020rako duen defizit-mugari buruz negoziatzean?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an.

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumental enpresa publikoari buruz egin duen txostenari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Kontuen Ganberak Tracasa Instrumental enpresa publikoari buruz egin duen txostenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tracasa Instrumental eta Tracasa Mercado enpresen kontratazioan, kontrolean eta fakturazioan irregulartasunak daudela zalantzarik gabe azaltzen duen Kontuen Ganberaren txostena eza-gututa, txosten horren berri emanen al dio Nafarroako Gobernuak Fiskaltzari, jarduketa horietan diru publikoari eraginen lioketen deliturik dagoen sakon iker dezan?

Iruñean, 2020ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Esa handitzeko proiektuari buruzkoa.**

### *AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANRDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Esa handitzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko eledun Ainhoa Aznárez Igarza andreak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzenduriko gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, irailaren 10eko Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernuak dakiela, Esa handitzeko proiektuaren 5. aldaketa bat idazten ari al dira?

Iruñean, 2020ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, aurrekontu-ekitaldi hau ixteko aurreikuspenari buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun galdera, aurrekontu-ekitaldi hau ixteko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun han-

diko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dadin eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan 2020ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran:

Zein da aurrekontu-ekitaldi hau ixteko aurreikuspena, hura gauzatzean eragiten ari diren faktore guztiak kontuan hartuta (diru-sarrera fiskalen bidez aurreikusitakoa baino diru-bilketa txikiagoa, COVID-19aren ondoriozko ezohiko gastuak, 2019ko superabita aparteko kredituak finantzatzeko erabiltzea, Estatuak Nafarroako BPGren % 2.3ko zor publikoa kontratatze baimena ematea, Toki Ogasunen Funtzari atxikitako diruzaintzako gerakina erabiltzea...)? 2021erako gastumuga Nafarroa Suspertu planean jasotakoaren antzekoa izanen dela aurreikusten al du Gobernuak?

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, udal-titulartasuneko zentroetan COVIDaren aurkako higie-neurriak finantzatzeari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, udal-titulartasuneko zentroetan COVIDaren aurkako higie-neurriak finantzatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau

egiten du, Nafarroako Gobernuak 2020ko irailaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikasturte berriak berekin dakar aparteko segurtasun-, desinfekzio- eta garbiketa-neurriak aplikatzeko protokoloak ezartzea irakaskuntza-maila guztietan, baita udal-titulartasuneko edo -kudeaketako zentroetan ere, hala nola 0-3 urte bitarteko haur eta lehen hezkuntzako zentroetan eta musika-eskoletan. Udalek zenbateko handiagoko edo txikiagoko kostu gehigarriei aurre egin beharko diete.

Nafarroako Gobernuak nola finantzatuko du eta nola emanen die aholku toki-entitateei udal-titulartasuneko ikastetxeek eta musikak-eskolek beharrezko material higieniko eta desinfektatzailea eta garbiketa-zerbitzu indartuak dituztela bermatzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero



## **Galdera, birusaren lehen kutsatze-kolpean egoitza-eremuan egon zen kutsatu-kopuru handia saihesteko hartutako erabakiei buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, birusaren lehen kutsatze-kolpean egoitza-eremuan egon zen kutsatu-kopuru handia saihesteko hartutako erabakiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

María Chivite lehendakariak elkarrizketa batean egin berri dituen adierazpenak kontuan hartuta, zeinetan aipatzen baitu COVID-19ak Nafarroan izan duen inpaktu izugarriaren erantzulea egoitza-sistema dela, uste al du Nafarroako Gobernuko lehendakariak Nafarroako Gobernuak beste erabaki batzuk har zitzakeela birusaren lehen kutsatze-kolpean egoitza-eremuan egon zen kutsatu-kopuru handia saihesteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.**

**Onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda**

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2020ko ekainaren 26ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukaturik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Izangai bazterturik egon ez denez, bidezkoa da zerrenda hau behin betikotzat onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek EBATZIDU:

**Lehena.** Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

*a) Onartuak:*

Almirantearena Larrañeta, María Lidia

De Esteban Salvo, Yoana  
Ezkerra Andueza, Kepa  
García Cascante, M<sup>a</sup> Esperanza  
García Logroño, José Javier  
Garralda Iriarte, Aitor  
González de Castejón Hermoso, María Jesús  
Goñi Górriz, María Mercedes  
Maeztu Irurzun, Daniel  
Martín Ortiz de Landázuri, Patricia  
Pérez Remondegui, José Javier  
Ruiz Reinaldos, Ana  
Serrano Arana, Aimar  
Soria Martín, Christian

*b) Baztertuak:*

Inor ere ez.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga



